

## Zalla hobetzen: elkarbizitza txakurrekin

Herritar asko kezkatuta daude laguntza-animaliekin batera bizi behar dutela eta; beraz, Udalak elkarbizitza hobetzeko proposamen bat idaztea erabaki du.

Hainbat proposamen eta kexa jaso ditugu, eta batzuek adierazi dutenez, arazoa da jendeak **ez dituela batzen** gure maskoten **gorozkiak**. Gurasoen kexak jaso ditugu, seme-alabak parkeko belarreen jolasten aritu ostean zikinduta bueltatu direlako, bai eta paseatzerakoan ezusteko desatseginak aurkitu dituen jendearenak ere. Beste batzuek, aldiz, adierazi dute **beldur handia ematen dietela aske dabiltzan txakurrek**. Halaber, arazo horiek guztiak konpontzeko moduak eta baliabideak ere proposatu dizkigute.

Txakurren **agresibitateari** dagokionez, azken urteotan ez dugu ustekabe handiegirik izan herrian, baina denok dakigu zer nolako izaera izan dezaketen gure maskotek. Horrexegatik arduratu behar dugu gure maskotak kontrolatzeaz eta konponbidea emateaz; izan ere, jabea gogaitzen ez duten gauza batzuk ezerosoak izan daitezke bizilagunentzat.

Kontu honen inguruan hainbat arazo daudenez gero, alde guztien **iritzia jaso nahi dugu**. Ziur gaude elkarbizitza hobetu behar dugula, herritarrek eta maskotak elkarrekin egon daitezen inolako arazorik gabe. Horretarako, erabaki dugu Etxebarriko ordenantza hartzea oinarritzat, baita Estatuko zein gure Autonomia Erkidegoko arauak ere (ordenantza propiorik izan ezean, lege horiek hartu behar ditugu aintzat).

Gainera, ordenantza horren arabera, gure maskotak paseatzeko **guneak sortu** behar dira, eta **ordutegiak ezarriko** dira, herritarrei hainbat gune erabiltzea eragotzi gabe.

Ordenantza hau abiaraztearekin batera, **poltsak banatzeko aparatuak** jarriko dira, gure maskoten gorozkiak bertan uzteko. Era berean, aztertu egingo da maskotak ibiltzeko guneetan zaborrontzi gehiago jar daitezkeen, gune horietan beharrezkoa baldin bada. Irtenbide onena aurkitu behar dugu, eta, horretarako, **zuen proposamenak jasotzea** gustatuko litzaiguke. Posta elektronikoz edo iradokizun-orri baten bidez helaraz ditzakezue.

[perros@zalla.org](mailto:perros@zalla.org)

[txakurrak@zalla.org](mailto:txakurrak@zalla.org)

## Txakurrei buruzko ordenantzaren proposamenaren laburpena

### Araudia eta zehapenak

- Zure txakurra Udaleko erroldan sartu behar duzu, hilabeteko epean, jaiotzen denetik edo hartzen duzuket zenbatzen hasita (30 - 300 €).
- Animalia osasun-txartela eta txipa izan behar dituzu (30 - 300 €).
- Txakurrak uhalarekin eta lepokoarekin eraman behar dituzu, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliek muturrekoa ere eduki behar dute (300 - 2.404 €).
- Animalia gorozkiak jaso behar dituzu (30 - 300 €).
- Arriskutsuak izan daitezkeen arrazak edukitzeko lizentzia izan behar duzu (2.004 - 15.025 €).

### Paseatzeko guneak

Paseatzeko guneak bi esparrutan banatuko dira:

1. Berdea: arriskutsuak ez diren txakurrak aske ibil daitezke (uhalik eta lepokorik gabe) egun guztian zehar, betiere jabeen kontrolpean (bistatik galdu gabe).
2. Horia: arriskutsuak ez diren animaliak aske ibili daitezke (uhalik eta lepokorik gabe), betiere jabeen kontrolpean (bistatik galdu gabe), gune honetarako ezarritako ordutegiaren barruan.

**Gune berdeak:** Santa Ana baselizako gunea

**Gune horiak:**

**Ordutegia:**

- Urritik martxora: 20:30etik 7:30era.
- Apiriletik irailera: 22:30etik 7:30era.

Euskadi plaza, San Pedro Zarikete parkea, Artebizkarra parkea, Ibaiondo parkea, El Carmen auzoko parkea, Zallako udal-parkea, Bolunburu parkea, La Inmaculada auzoa (futbol-zelaira sartzeko bidea; lorategiak, eliza...), Padres Paulinos urbanizazioko parkea eta Zallako bidegorriak.